

**CESID.** Launa urteko espetxe zigorra eskatzen du akusazio partikularrak CESIDeko zuzendari nagusi ohientzat

# HBri eginiko entzuketengatik epaituko dituzte Calderon eta Manglano

Akusazioen txostenak aztertu eta ahozko epaiketara jotzea erabaki du Gasteizko epaitegiak

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Gasteizko bigarren instrukzio epaitegiak HBri eginiko entzuketan auzian ahozko epaiketara zabaltzea erabaki du. Auzi horretan akusatuta daude Emilio Alonso Manglano eta Javier Calderon CESIDeko zuzendari nagusi ohiak, eta baita CESIDeko beste lau agente ere: Mario Cantero, Francisco Bujan, Victor Casteran eta Felipe Millan. Guztiei «sekretuak jakinaraztea eta agerraraztea» leporatzen diete, talde politiko horri legez kanpo entzuketak egiteagatik.

Bigarren instrukzio epaitegiak otsailaren 4an kaleratutako autoan erabakitzen du ahozko epaiketaren prozedura abiatzea. Fiskalak eta akusazio partikularrak aurkeztutako behin-behineko akusazio txostenak aztertu ondoren hartu du erabakia. Fiskalak soilik Cantero eta Bujanen aurkako akusazioa aurkeztu zuen lehen aipatu delituak egitea leporatuta. Bi urte eta sei hilabetez espetxe zigorra, 20 hilabetez egunero 12,02 euro ordaintzeko isuna, eta zortzina urteko erabateko inhabilitazioa jasotzea eskatu zuen.

## CESIDeko buru ohiak akusazioaren eskariz

HBren izenean akusazio partikularra daraman abokatuak, Iñigo Iruinek, Cantero eta Bujanen gain, Victor Casteran eta



JOSEBA OLALDE  
Polizia Judiziala HBren egoitza miatzen, CESIDeko entzuketak egiten zituela jakin ondoren.

Felipe Millanen aurkako akusazioa ere aurkeztu du, eta baita Manglano eta Calderonen aurkako ere. Guztiei «sekretuak jakinarazi eta agerraraztearen delitu jarraitua» egotzi die. Manglano eta Calderonentzat lau urteko espetxe zigorra, 24 hilabetez egunero 60,1 euro ordaintzea eta hamabina urtez erabateko inhabilitazioa jasotzea eskatu du. Lau agenteentzat hiru urte, zazpi hilabete eta hamabost eguneko espetxe eskaera, 24 hilabetez egunero

18,03 euro ordaintzea eta hamabina urteko inhabilitazioa eskatu du.

Epaitegiaren erabakiak eskaera horiek guztiak biltzen ditu. Horretaz gain, akusatuei 6.000 euroko (milioi bat pezeta) bermea eskatzen die izan daitezkeen erantzukizun zibilei aurre egiteko. Berme hori jarri ezean, diru kopuru horri dagokion bahimendua egingo dutela ohartarazten du.

Aldeei erabakia jakinarazi eta akusatuek defentsa izendatu eta

defentsako idatzia aurkezteko epea izango dute. Halaber, Gasteizko Probintzia Auzitegiari jakinaraziko diote erabakia, hari baitagokio epaiketara egitea. Hala ere, epaiketara heldu aurretik akusatuen defentsak ikerketa prozedura laburtu bihurtzearen aurka jarri zuten kexa aztertze-kodago.

1998ko martxoaren 31n jakin zen CESID HBren Gasteizko egoitzan entzuketak egiten ari zela, alderdi hori telefonoen zentrala aldatzen hasi zenean.

## AKUSAZIOAREN TXOSTENA

### Hamar urtez egoitza zelatatzen

Akusazioak bere txostenean gertaeren inguruko errepa-soa egiten du. Haren arabera, Espainiako Defentsa Ministerioaren menpekora den CESIDek, eta konkretuki 1988an zuzendari nagusia zen Emilio Alonso Manglano erabaki zuen Gasteizen, HBren egoitzaren inguruetan —Ramiro de Maeztu kalean— talde bat zabaltzea, «HBren mugimenduak kontrolatzeko».

Horretarako, egoitzaren parean etxebizitza bat alokatu zuten, lehenik. «Handik bideo irudiak hartzen zituzten Casteran eta Millanek, 1998ra arte». Kale berean beste etxe bat alokatu zuen CESIDek 1990an, 1995era arte. Alokaturako hirugarren etxebizitza HBren egoitzaren gainekoa izan zen 1992an, eta 1994an erosi egin zuen CESIDek agente baten izen faltsua baliatuz. «Etxebizitza horretan telefono entzuketak eta audio-bideo irudiak ikusteko zentrala jarri zuten. Horretarako, etxean obrak egiteko eskaera egin eta HBren egoitzako sabai faltsura heldu ziren CESIDeko kideak, telefono hariak hartuz». Cantero eta Bujan lirakeke segimendua egin zuten etxe horretatik.

Javier Calderon, 1996tik duela gutxira arte izan da CESIDeko zuzendari, eta akusazioaren ustez, bazuen entzuketan berri.

## LABURREAN

### Jose Ignacio Labiano UPNko Iruñeko zinegotziak kargua utzi du, «arrazoi pertsonalengatik»

Jose Ignacio Labianok Iruñeko Udalean zuen UPNko zinegotzi kargua utzi du. Labianok esan du «arrazoi pertsonalengatik bakarrik» alde egiten duela eta aurrerantzean duela hamar urte ari zen enpresan lanean jarraituko duela. Labiano Hirigintza zinegotzi eta alkateorde zen. Barcinari igorri eskutitzean, 1999ko hauteskundeetan ondorengo harturiko mandatu ezin bukatu izanak «pena» eragiten diola azaldu du. Labiano izan da hainbat kritika eta salaketa jaso dituen Gaztelu Plazako aparkalekuaren lanen erantzukizuna izan duena.

### Anasagastik ondo deritza Madrilek ANV-EAeri Gerra Zibilean konfiskatutako dirua ordaintzeari

EAJko bozeramaile Espainiako Kongresuan Iñaki Anasagastik ontzat jo zuen Madrilek ANV-EAE alderdiari —HBren sortzailea— 685.178,5 euro ordaintzea, Gerra Zibilean konfiskatutako ondasunengatik. Bere ustez, Madrilek «legea bete behar du». «Ezin zaio ETari aurre egin eta Batasuna isolatu, legea bete gabe. Ekimen adimentsuagoak eta legearekin bat datozenak erabili behar dira», esan zuen.

### Joxe Arregiri omenaldia eta elkarretaratzea, gaur, Torturaren kontrako Egunean

Askatasunak torturaren kontrako elgarretaratzeak antolatu ditu gaur Hendaian eta Baionan, Torturaren kontrako Egunean baitan. Lehenbizikoa 12:30ean iraganen da Baionan, Espainiako konsulatua aituzinean. Arratsaldeko 18:30ean Baionako Herriko Etxearen aituzinean eta Hendaiaiko Zumardien bidegurutzean ere elkartuko dira. Bestalde, gaur 20:00etan omenaldia egingo zaio Zizurkilgo hilerrian Joxe Arregiri, bere heriotzaren XXI. urteurrenean. Larunbatean 09:00etan Zizurkilgo Pedro Mari Otaño plazatik mendi martxa irtengo da, 12:30ean omenaldia egingo da, eta 14:00etan bazkaria izango da.

### HBri laguntzak ez emateko legearen aurka jarritako konstituzionaltasun auzia ontzat jo du Fiskaltzak

Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak ontzat jo du Espainiako 2002ko Aurrekontuaren Legearen aurka jarritako konstituzionaltasun auzia. Lege horri PPK eta PSOEek egindako zuzenketa baten ondorioz, aukera ematen zaio Espainiako Barne Ministerioari hauteskundeengatik HBri dagozkion diru laguntzak ez ordaintzeko. Gogoratu behar da, diru laguntza horiek ez ordaintzeagatik Auzitegi Nazionalak isunak jarri zizkiola Barne Ministerioari.

### «PSE-EEko zuzendaritzarako hiru edo lau hautagai daude, Javier Rojo barne», jakinarazi du Calderak

PSE-EEko idazkaritza nagusirako «hiru edo lau hautagai nagusi daude eta horien artean Javier Rojo dago», jakinarazi zuen atzo PSOEko bozeramaile Espainiako Kongresuan Jesus Calderak. Carlos Totorika, Patxi Lopez eta Gemma Zabaletaren izenak ere aipatu zituen kargu horretarako. Calderak esan zuen PSE-EEren Batzorde Nazionala kezkatuta dagoela EAeko sozialistak herritarrengandik urrundu daitezkeelako barne kohesioa bilatzeagatik.